

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

## *Barkoxe*

Aurkibidea

# Udalerria: Barkoxe

## Sarrera



Zuberoako udalerrri nagusietakoa da, Basabürüan kokaturik dagoena. Lurraldeko hirugarren udalerrri populatuena da, Maule-Lextarre eta Sohütaren ondoren. Udalerrri hauek ditu mugakide: iparraldean, Sohüta eta Ospitalepea; ipar-ekialdean, Jeruntze, Ustasu, Josibaia eta Sangoine (denak Biarnon); ekialdean, Eskiula; mendebaldean, Zalgize-Doneztebe eta Arrokiaga; hego-ekialdean, Aramitze (Biarno); hego-mendebaldean, Atharratze-Sorholüze eta Iruri; eta, hegoaldean, Landa (Biarno) eta Montori. Barkoxeko ekonomia laborantzan dago oinarrituta (polilaborantza eta artzaintza).

- **Biztanleak:** 714
- **Euskaldunak:** %77,39

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **10**
- Zintak: **10**
- Pasarteak: **64**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **27**

## Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Euskalkiak.eus
- Periferiaren mugak
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)

## Hizlariak



**Aurri Althabe** (1938)

Basaburuako Barkoxen jaiotza, herri berean bizi da.

**Marie Rose Aroix Bielle** (1935)

Sortzez Aroix, Bielle du ezkontze izena. Pierra Aroix zuen aita, Barkoxeko Pordoy etxekoa, eta ama Altzaikoa, Marianne Aranburu "Bidabia". Laborariak ziren: aitak oihanean lan egiten zuen asko, egurra mozten eta saltzen. Mitil bat zuten etxean eta oihanean laguntzeko. Sei anai-arreba ziren, ia dena neskak gazteena salbu; ahizpetako bat gaztetan hil zen. Marie Rose Parisera joan zen neskato, eta fabrika batean lanean ere ibili zen. Jean Biellekin ezkondu zen, Parisen elkar ezagututa. Maulera sartu zirelarik, Bidegain fabriketan lan egin zuen Marie Rosek; senarra SNCFn lanean ari zen. Ahizpa zaharrenak hartu zuen etxondoaren segida. Aitarekin ikasi zuten dantzan eta kantuan.



**Kattalin Arthapignet Mugordoy** (1923)

Kattalin Barkoxen sortu zen. JohaÑe Mugordoy-ekin ezkondu zen eta 4 haur izan zituzten. Laborariak ziren Pagolan, Oskaxeko lepotik hurbil. Haur denbora Barkoxen aipatzen digu, familia barnean bakoitzaren egitekoak, beste laborariekin, auzoekin. Xerri ehaitea... Haurkatzea nola pasa zen 1949an Pagolan kondatzen du. Alaba gehienarekin noka ari zaio baina gazteenarekin zuka.



**Marie Barrère** (1866)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Jornalaria zen eta 47 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Buenos Airesen (Argentina) jaio zen 1866. urtean. Euskalkia: zuberera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.202

### **Louis Garat (1936)**



Barkoxeko "Etxartia" etxaldean jaio zen, hamabi senideko familian. Umetan artzain ibili zen, baina 45 urtez mekanikoa izan da Barkoxen bertan, Garat garajeko arduraduna. Ehiztaria izan da. Elkarrizketa laburra egin zitzaion, baina bere lagun Battitta Sagardoiri egindako beste elkarrizketa batean ere azaltzen da.

### **Maidalena Irabarnia (1925)**



Barkoxen sortua 1925ean. Aita Barkoxekoa bertakoa zuen eta ama, berriz, Atharratzekoa. Bost haurride ziren. Jean Baptiste senarrarekin ezkondu zenean Ozazera joan zen bizitzera eta bi alaba izan zituen. Laboraria.

### **Arnaud Lexardoi**



Arnaud Lexardoi barkoxtarra, zortzi urterekin hasi zen euskal-dantzak ikasten. Lehenengo aitarekin eta gero beste bi irakasle gehiagorekin. Dozena bat haur elkartzen ziren igande goizetan dantzan ikasteko. Dantza-irakaslea da orain. Zuberoako dantzen inguruan hitz egiten du.

### **Patrick Queheille *Kanpo* (1964)**



Patrick euskalduna da txikitatik. Euskal kulturaren mugildua egon da eta bi pastoral idatzi ditu.

### **Battitta Sagardoi *Karikiri* (1936)**



Barkoxeko (Zuberoa) "Karikiri" etxean jaio zen 1936. urtean. Mendizalea eta animaliazalea, ondo ezagutzen ditu Barkoxe inguruko bazter eta mendiak, eta ondo ezagutzen ditu animalien ibilerak eta izenak. Grabazioan bere lagun Louis Garat (1936) barkoxtarra ere ageri da.

### **Julie Touan (1862)**

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Irakaslea zen eta 51 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Gurasoak ere Barkoxen jaiok ziren. Euskalkia: Zuberera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.203

# Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## 1. Ohiturak eta bizimodua

### 1.1. "Agota" kanta zaharra

- **Hizlaria(k):** Barrère, Marie
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** BAR-004/001
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:44
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- **Laburpena:** "Agota" izena duen abestia kantatzen du. Agotak Euskal Herrian bizi diren giza taldeak dira eta ez ziren ongi onartuak euskaldunen artean. Legenardunak omen ziren haien arbasoak eta zenbait gorputz atal desitxuratuak zituzten. Maitemindurik dagoen neska bati buruzkoa da kanta hau, bere etxeok ezkontza horren aurkakoak baitira.

#### Transkripzioa

Agota

Argia azkorrian jinik ene ardiekilan  
bethi beha entzün nahiz nunbaitik zure botza.  
Ardiak nun ütztüzü erradazüt egia  
nigarrez ikhusten deizüt zure begi ejerra.

Ene aitaren isilik jin nüzü zuregana  
bihotza erdiatürrik zihauri erraitera  
khanbiatü deitadela ardien alhagia  
sekülakotz defendatu zureki mintzatzia.

Gor niza ala entzün düt erran deitadazia  
sekülakoz jin zirela adio erraitera  
etziradia orhitzten gük hitzaman ginila  
mündian bizi güneno algaren maithatzia.

Atzo norbait izan düzü ene aitametara  
gük algar maite günila haien abertitzera  
algarganik hürrinteraztez, fite ditzen lehia  
eta eztitien jünta kasta agotarekila.

Agotak balia dila badizüt entzütia  
ni ere hala nizala erran deitadazia  
egündano ükhan banü dremenden leñhüria  
enündüzün ausartüren begilat sogitera.

Jentetan den ejerrena humen düzü agota  
bilho holli, larrü xuri eta begi ñabarra

nik ikhusi [artzañetan zü zira ejerrena  
ejer izateko aments Agot izan behar da.

Soizü nuntik ezagützen den zoin den jente agota  
lehen suaz egiten zaio hari beharrialala

bata dizü txipiago eta aldiz bestia  
biribil eta orotarik bilhoz ingüratia.

Hori hala balin bada haietarik etzira  
ezi züre beharriak algar iduri dira  
agot denak txipiago badü beharri bata  
aitari erranen derot biak bardin tüzüla]

## 1.2. "Alagera barkostarrak guatzen oro plazala"

- **Hizlaria(k):** Touan, Julie
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** BAR-005/001
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:55
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Alagera barkostarrak guatzen oro plazala" errezitatzen du. Jacques Sardo Ameriketatik aberastua heldu da. Herriko mutil gazteei bere omenez dantza egiteko, abesteko eta musika jotzeko gonbidapena egiten die abesti honek.

### Transkripzioa

Alagera barkostarrak guatzen oro plazala  
bestaren uhuratzeko berseten entzütera  
Uskal herriko dantzari hobenen ikhustera  
ardua dohain da egün har beiriak errada.

Hunki jin musde Jakobe adixkide maitia  
Barkoseko semetan zü lehenetarik zira  
itsasu ren bi aldetan juanik da zure fama  
nurk daki zure fortünak nun dian bere müga.

Aurretik nartu zun ian Uskaldunen xedia  
laneko gogo azkarra eta unestatia  
eman deikuzu Jakobe güzier etsenplia  
ondotik badila bethi lanak bere sana.

Txori ejer poliño bat Gaztalondorik joan zen  
Xederan hatzamaitia hanitxek desir zükien  
Ameriketa zoletan algar maitatu zünien  
plazereki orai dügü zure khantin ikhusten.

Egün zü ümen zira gure khumitazale  
bethidanik Izan zira karitate egile  
praubiaren lagüntzale abis hunik emaile  
hartakoz zuk bazterretan hainbeste adiskide.

Gure bihotz bihotzetan eztütügü ahazten  
Marti zure anaia zure kosi Jülien  
Egurbide, Undarzüli, Ilharregi orhitzen  
gure eskerrak orori deretzü igorriren.

Orhin sortü txontua Orhirat da ützüttzen

Barkoserik jelki dena Barkoserat ethortzen  
Bortüko aire sanua heben dügü gozatzen  
gure artian Jakobe balima laketüren.

Jozak aitzina sonia emak emak tabala  
mothiko gazte senthuak goratik zitie dantza  
ardu gorri hobenetik beiriak bete  
eta Jakoberen grazian eman dezagün topa.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Barkoxen sortua, Karrikiri etxean (BAR-001/002)

Barkoxen sortu zen, 1936ko martxoaren 20an. Karrikiri etxean jaio zen. Urte asko pasa ditu Barkoxetik kanpo, han eta hemen, lanean. Laborantzan denbora gutxi egin zuen.

### 2. Hontzak, mozoloa, okilak... (BAR-001/004)

Barkoxe inguruko txorien izenak azaltzen ditu Battittak (bere lagun Louisekin batera). Pikak, kahakak, hüntzak, hazitxoriak, ükhül beltza... Okil arrunta bada (ükhüla), baina okil beltza oso gutxi.

### 3. Basoilarra edo bedatseoilarra (BAR-001/005)

Basoilarra edo bedatseoilarra (argioilarra), maiatzean azaltzen da. Hegazti asko maiatzean azaltzen dira, udaberrian.

### 4. Hontzak: kahaka, hüntza eta hüntz xuria (BAR-001/006)

Hontzen artean badira 3-4 espezie. Kahaka (Athene noctua), hüntza (Asio otus), hüntz xuria (Tyto alba)...

### 5. Kukuaren joan-etorriak (BAR-001/007)

Kukua (k&uuml;k&uuml;a) martxo-a-apirila aldean etortzen da eta ekainean joaten. Joan aurretik lau-bost elkartzen dira eta elkarrekin joaten.

### 6. Barkoxe inguruan ehizatzen diren txoriak: usoak, oilagorrak eta istingorrak (BAR-001/008)

Txorien izenak esaten jarraitzen dute, ehizakoak direnak, bereziki. Usoen artean, urzoa, urzo ttipia, urzapala... Barkoxe inguruan bada urhoilorik. Itsasoko hegaztirik ez, ordea. Ongi ezagutzen duten beste bat, azeia da (oilagorra). Oilagorrak badu luma tipi eta gogor bat, hegalen azpian, margotzeko erabiltzen dena. Azeiaren antzeko beste bat, bekaxina da. Larrazkenean azaltzen da eta ez da bortuetan ikusten, behe aldean baizik ez.

### 7. Kurloak, antzarak eta ahateak (BAR-001/009)

Azkenaldian, baita "egretak" ere ("heron ttipiak"), xuri-xuriak. Lehen ez zen horrelakorik eta horregatik ez dute euskarazko izenik. Behorren inguruan ikusten dira, batzuetan behien gainean pausatuta. Beste zenbait espezie ere

azaldu dira azkenaldian, kormoranak (ubarroiak) eta heronak (koartzak). Beste hegazti batzuk, aldiz, bizi guztian ezagutu izan dituzte: kurloak, antzarak eta ahateak. Kurloak ugari pasatzen dira batzuetan, eta lainoa bada pausatu ere egiten dira. Gehienetan gauez pasatzen dira. Antzarak gutxiago pasatzen dira, baina tarteka bai. Ahateak eta zertzelak ere ikusten dira.

### **8. Hegazti harrapakariak: arranoa, buitrea, apobelatza, ùlhantxa... (BAR-001/011)**

Buitreak eta buitrea xuriak ere badira. "Gipaeta" ere ezagutzen dute (ugatza). Arranoak ere badira. ùlhantxa ere bada (mirua). Bi dira: beltzak kumeak ateratzen ditu bertan; gorria pasekoa da. Apobelatza (zapelaitza) eta esparbera (gabiraia) ere badira, espezie bat baino gehiago. Eguraldi txarra egin behar duenean, antzeman egiten du. Beste espezie bat ere bada, arra argia eta emea iluna (eta handiagoa) (Circus cyaneus), baina ez dute izena oroitzen.

### **9. Galeperra desagertu egin da, gariarekin batera (BAR-001/012)**

Eperrak ere badira. Gorria asko; grisa gutxiago. Xuria ere bada, baina bortuan. Kaillak ere badira (galeperrak); zenbaitek "tartalo" deritze, baina ez Barkoxen. Lehen asko zen, baina orain ez da garirik ("ogirik") eta desagertu egin dira. 1965 arte etxe oro egiten zen, baina harrezkero ezer ere ez.

### **10. Enarak (BAR-001/014)**

Enarak ("ainhiak"). Eliza inguruan beste "enara" batzuk ere badira, sekula ez direnak pausatzen (Apus apus). Enaren artean badira mendian bizi diren batzuk, Alpe ingurukoak. Barkoxen ez dira, baina Atharratzen bai. Enarak zaindu egiten ziren. Enara bat hiltzen bazen, behi guztiak hilko zirela uste zen. Euliak jaten dituzte. Lohia eta belarrak hartzen dituzte lurretik eta habiak egiten.

### **11. Beleen artean badira hainbat klase: belexega, erroia... (BAR-001/016)**

Beeleen taldea. Hainbat espezie dira: eskinasoak, pikak, belexegak, beleak, bortuko beleak, erroiak

### **12. Txori tipiek ez dute izenik, ez baitira jaten (BAR-001/018)**

Mendietan bada "borthuko xori" bat (O. oenanthe). Franko da eta oso ezaguna, baina ez du izenik, "ez baitzen aski handi jateko". Txori tipiek ez dute euskarazko izenik, ez badira jaten. "Papogorriak" bai, horrek izena du, eta ez da jaten.

### **13. Zozoak eta birigarroak (BAR-001/020)**

Zozoen artean 3 klase dira: xoxoa, bilagarroa eta trida (karraztarroa). Laugarren bat ere bada, koilar zuria duen zozo bat.

### **14. Buztanluzeak, burubeltzak... (BAR-001/022)**

Buztanluxa (Aegithalos caudatus) eta "harphexoriak" (ez du izena ongi gogoratzen), burubeltzak (Parus sp.). ùkhül ttipia (Sitta europaea), zuhaitzetako zuloetan bizi da (edozein zuhaitzetan).

### **15. Metatxoria (txolarrea) sareekin harrapatzen zuten (BAR-001/023)**

Metatxoria (*Passer domesticus*). Horrela deitzen zaio, gauetz meta barruan gordetzen baitira neguan. Sare handi batekin harrapatzen zituzten. Metaren inguruan sare jarri, haga batekin jo, eta sarean geratzen ziren. Osorik jaten ziren, erreta, hezur eta guzti.

### **16. Kardinaleek (karnaba) arteetan egiten dute lo (BAR-001/025)**

Kardinallea (*Carduelis carduelis*). Battittak bazuen arte bat etxe alboan eta neguan bertan igarotzen zuten gaua, arteak neguan ez baitute ostorik galtzen.

### **17. Putreak beheraino jaisten dira jatera (BAR-001/027)**

Arranoak eta erroiak Barkoxera bertara jaisten dira. Orain gutxi daukate jateko eta animalia biziei ere erasotzen diete, batez ere udaberrian, mendietan ez dagoenean janaririk, eta kumeak jaiotzen direnean.

### **18. Pikak (mikak) eta beleak (BAR-002/001)**

Pika "porkeria" da. Beste hegazti batzuen habiak apurtu eta bertan jartzen ditu bere arrautzak. Beleak ere asko dira Barkoxe inguruan eta mendietan. Pierre de Saint Martin inguruan belexegak ikusten dira. Eta Barkoxen bi bele mota daude, arrunta eta beste handiago bat, haragia jaten duena.

### **19. Arranuak eta builtriak (BAR-002/002)**

Zuberoako mendietan "arranuak" (ugatzak) eta "builtriak" (saiak) daude. Ez dira berdinak.

### **20. Barkoxe herria (BAR-003/002)**

Barkoxe herri ona izana da, baina gibelera ari da politikak eta zaharren hiltzeak eraginik. Gerrak ere makur ugari ekarri zuen.

### **21. Etxeko esplotazioa (BAR-003/003)**

Laborantxan ibili izan da beti. 30 behi ditu, 400 ardi, urdeak eta oiloak. Alaba eta suhia ari dira orain lanean.

### **22. Ilobak (BAR-003/004)**

Bost iloba dituzte. Etxean batzuk, Agnos-en beste batzuk eta Ezpeizen ere bai, euskaldunak denak.

### **23. Igandeak Barkoxen (BAR-003/005)**

Besteen etxera joaten dira festa egitera. Amaren etxean dira, 92 urte ditu. Orain ez da mezetara joaten. Apaizen gabezia da gaur egun, ezkontzen ez zituztelako uzten bere ustez. Hilean bi aldiz egoten da meza, eta Mauleko apaizak ematen du. Elizara joaten zen neskei so egiteko, eta hala ezagutu zuen bere emaztea. Ostatueta ere ez da lehen bezainbat jende joaten.

### **24. Eskiula herriari buruz (BAR-003/007)**

Euskal Herria da oraindik, nahiz eta Biarnoko lurretan egon

## **25. Gazteak eta euskara (BAR-003/009)**

Euskaraz dakite gazte guztiek baina elkarren artean frantsesez ari dira.

## **26. Karta-jokoa (BAR-003/010)**

Jokoan ari dira. Amañik irabazten du beti, ostegun oroz aritzen baita. Kartek eurak dute jokua gobernatzen. Hilabetean behin edo aritzen dira.

## **27. Lehenago eta oraingo bizia (BAR-003/011)**

Gazteek orain ez dute ezertarako astirik, lehenago baino harrokeria handiagoa dute.

## **28. Gazteen bizimodua (BAR-003/012)**

Lur asko behar dute orain gazteek bizi ahal izateko. Etxean bat gelditzen da eta beste haurrideak kanpora joaten dira bizimodua ateratzera. Pabe, Olorue eta Maulera joaten dira. Etxeak husten ari dira, ezkongabeak baitira bizi.

## **29. Lehenago bestak (BAR-003/013)**

Lehen besta asko egiten zuen, baina ezkontzean gelditu zen. Musika zen herri guztietatko festetan nagusi. Lehenago Barkoxen bi astetik behin musika zen, akordeoia eta saxofoia. Maiatzean dira herriko festak

## **30. Ogia egiten (BAR-003/015)**

Lehen ogia egiten zuten, baina orain batere ez. Oraskan masa oratzen zuten, eta ura, gatza, altxatura nahasten zitzaizkion. Gero labera sartzen zen. Labearen eta berotasunaren arabera denbora gehiagoz edo gutxiagoz eduktizen zen.

## **31. Arropa garbitzea (BAR-003/016)**

Jantziak eskuz garbitzen ziren Marseillako xaboinarekin latsarrian. Taula baten xaboinatzen ziren. Etxean nahiko ur ez bazen errekarra joaiten ziren. Lesibusan egosten ziren ondoren.

## **32. Eskolak ixten (BAR-003/017)**

Lehenago etxean jende asko zegoen, eta orain hutsik daude. Bere auzoan 40 haurretik goiti zeuden, baina orain eskola itxita dago. Bost eskola zeuden Barkoxen, eta orain dagoen bakarra zerratzeko puntuan dago. Ez zaio ondo iruditzen haurrak Sohütako ikastolara bidaltzea Barkoxen edukitzeko ordez.

## **33. Txikitako bizimodua (BAR-007/002)**

Madalenako auzoan bizi zen txikitan. 5 seme-alaba ziren, 4 neska eta mutiko bat. Mekanikarik ez baitzen lanean ibili behar ziren. Anaia gehienak izan zuen eskola gehien, hura gelditu behar baitzen etxean. Elurra zelarrik ez ziren joaten.

## **34. Ogiarekin lagun bati gertatu istorioa (BAR-007/003)**

Haur batek ogia buru gainean eraman baina erori zitzaion, hain behera, non eta berriz hartu ezin eta gau hartan ezin izan zuten ogirik jan haren etxean.

### **35. Eskolan euskararik ez. (BAR-007/004)**

Eskolan, kanpoan jaten zuten. Ezin zuten euskaraz mintzatu, eta hala egiten bazuten makiltxo bat ematen zieten. Bera ere oroitzen da zigortua izanaz.

### **36. Seme-alabek nahiago frantsesez (BAR-007/005)**

Ez du euskararik galdu, baina seme-alabak frantsesez ari dira haien lagunak hala mintzo baitira.

### **37. Haur zirelarik lanean gogorki (BAR-007/006)**

Jende asko ziren etxeetan. Bere etxean ere bi arreba neskame bidali zituzten, baina bera etxean gelditu zen lanerako. Behi deitzen aritu behar zuelarik ez zen eskolara joaten. 11 urterekin egin zuen jaunartzea eta orduan amaitu zuen eskola.

### **38. Emakumeen lanak (BAR-007/007)**

Umetan emakumeek kanpoko lanak egiten zituzten eta adinean Aurrera joan ahala etxe barnekoak ere bai.

### **39. Etxabereak (BAR-007/008)**

Behi, ardi eta mandoak zituzten etxean, baina gaur egun baino askoz eta gutxiago.

### **40. Laborantzako tresnak (BAR-007/009)**

Ez zuten tresnarik ia, fojuja bai, mandoekin tiratzen zena belarra eta garia mozteko. Lurra itzultzeko xarrüa erabiltzen zuten. Mandoak erabiltzen zituzten tresnak tiratzeko.

### **41. Ogia egiten zuten etxean (BAR-007/011)**

Labaka egiten zuten, hots ogia. Aste osorako egiten zen, eta etxe bakoitzean bazen labe bat.

### **42. Haurretako jolasak (BAR-007/012)**

Elur pelotak botatzen ibiltzen ziren.

### **43. Neguan gaztaina jaten (BAR-007/013)**

Gauetz, ohera joan baino lehen gaztainak jaten zituzten su ondoan.

### **44. Arto xuritzea (BAR-007/014)**

Arto xuritzetan jandea biltzen zen eta istorio kondan ibiltzen ziren.

### **45. Kantatzeko zaletasuna (BAR-007/016)**

Beste etxe batzuetan bazuten kantatzeko zaletasuna. Bere koinataren etxean 9 anai-arrebek bazuten kantatzeko zaletasunik, baina ez berak.

### **46. Etxahun Barkoxe (BAR-007/017)**

Etxahun Barkoxeren sortetxea beraien auzoan zegoen. Hegiaphalekin liskarrak izan eta ez zuen ongi amaitu. Etxahun Irurik hartu zuen haren lekukoa.

#### **47. Pastoralak eta Maskaradak (BAR-007/019)**

Ordu mordoa irauten zuten pastorek eta jende asko biltzen zen. Arizale guztiak gizonak ziren, baina Barkoxe izan zen, orain dela ez hain aspaldi, emakumeen parte hartzea maskaradetan onartzen lehen herria Marxe Eihartzet-i esker. Berak ikusi ditu baina inoiz ez du parte hartu. Oroitzen da nola behin ama atera zuten maskaradetan plazara. Etxahun Barkoxeren pastoralak ikustera joan zen Ozazetik Barkoxera hogeita zenbait urtetan.

#### **48. Lehen autoak (BAR-007/020)**

Baziren lehen ere autoak, baina beraiek ez zuten ezta biderik ere. 1949an Ozazera etorri zelarik, ostatuko jabeak bazuen.

#### **49. Ozazera ezkondu (BAR-007/021)**

24 urtetan ezkondu zen Ozazera. Azkenean ohitu zen bertan bizitzera. Bizikletaz eta oinez ibiltzen ziren garai hartan.

#### **50. Merkatuak (BAR-007/022)**

Atharrazen eta Barkoxen merkatua zegoen astelehenetan, batean herri batean eta bestean bestean. Autorik ez zutenak egun guztia pasatzera joaten ziren, eta eurak berriz, presaka itzuli behar. Aita beti merkatuetara joaten zen, eta biharamunean etortzen zen, bestondo pixka batekin, beti ere. Ez ziren joaten Maulera. Ez zen beste entretenimendurik eta jende gehiago joaten zen.

#### **51. Lehengo eta oraingo bizimodua (BAR-007/023)**

Asko aldatu da bizimodua. Lehen ez zen besterik eta horrekin konformatu behar.

#### **52. Belar mozteko eta biltzeko tresnak (BAR-007/024)**

Fanusa erabiltzen zuten belarra mozteko, eta biltzeko bi errubera zituen arrastelu handi bat baliatzen zuten

#### **53. Lehenago bizitza lasaiagoa eta alegeragoa (BAR-007/025)**

Lehenago jendea ez zen presaka bizi, alegerago bizi zen, eta elkarren artean tratatu gehiago zegoen.

#### **54. Lehengo festak (BAR-007/026)**

Permisioena bazuten egiten zuten besta. Maiatzean Barkoxeko festak ziren, Salbatorez berriz, haurren festa zenez, etxeak biltzen ziren. Kariletan dantzatzen ziren, eta balsak edota dantza jauziak ez ziren hainbeste egiten. Ez da oroitzen ze instrumentu jotzen ziren, baina xilula jotzen zuten maskaradetan.

#### **55. Berrito euskara erabiltzeko hautua (BAR-008/002)**

Euskararekiko hautuaren inguruan hitz egiten du, nola hasi zen berrito euskara erabiltzen.

#### **56. Euskarak Barkoxen duen egoera (BAR-008/003)**

Euskarak Barkoxen duen egoera; nola ikusten da euskaraz hitz egitea? Hezkuntza aldetik ze aukera daude?

## **57. Haurrak ikastolara eramateko hautua (BAR-008/004)**

Haurrak ikastolara eramatea hautu bat dela dio. Gainera, dauden aukerez hitz egiten du.

## **58. Euskararen egoera Barkoxen eta maskaradak (BAR-008/005)**

Euskarak Barkoxen izan duen egoera. Gaur egun maskaradetan gazte gehiago ibiltzen direla dio, eta orokorrean euskara menperatzen duten gazte gehiago daudela.

## **59. Periferia eta sentipenak (BAR-008/007)**

Periferian bizitzearen inguruan hitz egiten du.

## **60. Jendea euskarara gerturatu duten kultura ekimenak (BAR-008/008)**

Pastoralek zein euskal irratiek jendea euskarara gerturatu dutela aipatzen du.

## **61. Periferian bizitzearen trabak eta ekarpenak (BAR-008/010)**

Periferian bizitzearen inguruan hitz egiten du, dauden ekimenak eta sentipenak azalduz.

## **62. Barkoxen euskarak duen etorkizuna (BAR-008/012)**

Barkoxen euskarak duen etorkizuna.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-06-23*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com